

2021-2022 **ELKARBIZITZA Batzordea** 2022-ekainak-21

Bertaratuak:

Asier Mendizabal	Aintzane Gascón (ez bertaratua)	Nora Alejos
Silvia Sanchez	Arritokieta Zurbano (Oihana Osaren orde) (ez bertaratua)	Aimar Arrese-Igor
Amagoia Bilbao	Kistiñe Lujanbio	Itsaso Moreno (ez bertaratua)
Alaitz Rekondo	Ibon Arrizabalaga de Mingo (ez bertaratua)	Belén Merino

Gai ordena:

- 1.- Aurreko aktaren onarpena
- 2.- Ikasbidaiei antolakuntza
- 3.- Ikasturtearen azken egunen antolaketa
- 4.- Psikologoaren udal programa
- 5.- Ikasturte hasierako gelabilerak
- 6.- Orientazio bilerak. Batzorde berri baten eraketa.
- 7.- Elkarbizitza Batzordearen balorazioa. Baita beste batzordeen balorazioa ere.
- 8.- Elkarbizitza Batzordearen helburuak, kideak, funtzionamendua eta metodologia erabilgarria izan dadin
- 9.- Bestelakoak
- 10.- Galde-eskeak

Hitz egindakoa:

1.- Aurreko aktaren onarpena

Onartzen da.

2.- Ikasbidaiei antolakuntza

Balorazioa bidaliko dute, orokorrean ona da. Partaidetza: 1. DBHn 93, 2. DBHn 86, 3. DBHn 98 eta 4. DBHn 90 ikasle joan dira.

Irakasleen artean 1. eta 2. DBHn kohesioa lantzeko helburuarekin bidaia antolatzeke mugitzen ari dira, agian Zuatzara.

Gurasoen aldetik proposatzen dute bidaiak gau batekoak izan beharrean bikoak izatea.

Bidaietara joateko soluzio mistoa (hezitzaileak gehi irakasleak) ez da bideragarri ikusten.

Gurasoek denbora eskatzen dute antolatu ahal izateko. Aipatzen da UKPa onartu behar den Eskola Kontseiluan ikusi ahal izango dela ikastetxetik antolatzerik dugun eta ez balego esango geniola beraiek antolatu dezaten.

3.- Ikasturtearen azken egunen antolaketa

Gurasoen aldetik aipatzen dute azkeneko bi asteetan eskolatik, irakasleengandik, ikasleek askotan mezu hauek jasotzen dituztela: “etxean gelditu daiteke” edo “irakaslerik gabe egon gara klasean”.

Irakasle batek aipatzen du bisita antolatuta zegoela eta pira orokorra egin dutela ikasleek. Txango batera ere ez zirela joan.

Abenduko azken egunetan txapelketak antolatzea aipatzen da.

Ikasleak martxan jartzeko saiakera frustantea izan dela aipatzen da.

Irailean ikasturte bukaeraren antolaketa lantzeko konpromisoa hartzen du batzordeak.

4.- Psikologoaren udal programa

Gizarte zerbitzuak, ikastetxeak... hartzen dute parte programan. Irailean hasiko dira prebentzio lanean eta protokolo aldaketarekin. LHn detektatzeko lanak eta DBHn bideratzekoak egingo dira.

Galdetzen da zein zen irakasleek landu behar genuena: tutorearen papera.

5.- Ikasturte hasierako gelabilerak

Gurasoek prestatuko dute maila bakoitzeko aurkezpenean beraien ustean eman behar den informazioa. Ikastetxean aztertuko da.

6.- Orientazio bilerak. Batzorde berri baten eraketa.

Gurasoen aldetik aipatzen dute orientazio bilerak eskaxak direla eta ez direla argigarriak.

Honetarako batzordea osatzerik ez da ikusten.

Ekarpenak egin ditzaten eta orientazio mintegiarekin jarriko dira harremanetan.

Orientadoreak gurasoentzat ate irekia duela dio.

7.- Elkarbizitza Batzordearen balorazioa. Baita beste batzordeen balorazioa ere.

8.- Elkarbizitza Batzordearen helburuak, kideak, funtzionamendua eta metodologia erabilgarria izan dadin

Elkartzen dira bi puntuak. Honen inguruan ez da erabakirik hartzen.

9.- **Bestelakoak**

- Eskola-kirola DBH 1 eta 2n bultzatzeko ikastetxeko kontaktu bat behar dela aipatzen dute gurasoek. Gorputz hezkuntzako irakasle batekin harremanetan jarri behar dira eta esango zaie. Herri mailako antolakuntza da, astean behin kirola egiteko, klubetatik aparte.
- Aipatzen da irakasleen arteko $\frac{2}{3}$ eko plaza bat ikasle disruptiboekin lan egiteko erabiliko dela hurrengo ikasturtean.

10.- **Galde-eskeak**

- Gurasoen aldetik aipatzen dute 3. DBHn gertaera larria bidali dela aurretik ezer hitz egin gabe, errebueloa egon dela honen inguruan. Parte hartu duten batzuk ez dutela gertaera larria jaso eta jaso dutenen artean batzuk ez zutela parte hartu, gehitzen dute. Eta galdetzen dute ea nork sinatzen zuen ohar larria.

Hernanin, 2022ko ekainaren 27an